**IRABAZIAK LORTZEKO ASMORIK GABEKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2024KO DEIALDIA**

I. XEDEA

1.Artikulua. Xedea.

Oinarri hauen helburua da irabaziak lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak izendatu eta emateko bidea arautzea, horiek kirol arloaren barneko jarduera eta hedaketa bultzatzeko ekintzak antola eta bidera ditzaten, bai eta izaera bereziko kirol-jarduerak antolatzea ere. Beti ere, duten interesa eta eragina Zumaiako Udalaren xedeekin bat badatoz.

Kirol-arloko dirulaguntzak elkarte federatuei eta Kirol-ekitaldietarako dirulaguntzak jasotzen dituen oinarri arautzaileak eta deialdia, 2024-2027 epealdiko Zumaiako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoaren IX. eranskinean jasota dago. Helburua da irabaziak lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeek, kirol arloko jardueren sustapena eta ekintzak antolatzea; betiere Zumaiako Udalaren xedeekin bat datozen neurrian.

2. Artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Zumaiako Tokiko Gobernu Batzordea da.

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS A ASOCIACIONES Y CLUBES DEPORTIVOS SIN ÁNIMO DE LUCRO**

I. OBJETO

Artículo 1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases, la regulación del acceso y concesión de las ayudas económicas a asociaciones y clubes deportivos sin ánimo de lucro, para el desarrollo y realización de actividades de fomento de la formación específica y promoción deportiva, todo ello en el área del deporte y que, por su proyección e interés, coincidan con los objetivos del Ayuntamiento de Zumaia, así como para la organización de actividades deportivas de carácter especial.

Las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones en materia deportiva a asociaciones federadas y para eventos deportivos se recogen en el Anexo IX del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia para el periodo 2024-2027. El objetivo es que las asociaciones y clubes deportivos sin ánimo de lucro, promuevan actividades y organicen actividades deportivas en la medida en que sean acordes con los fines del Ayuntamiento de Zumaia.

Artículo 2. Órgano competente.

El órgano competente para aprobar estas bases es la Junta de Gobierno Local de Zumaia.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

3.Artikulua. Araudi aplikagarria.

Dirulaguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, oinarri hauek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaiako Udaleko Dirulaguntza ordenantza orokorra.

Artículo 3. Normativa aplicable.

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la asociación otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.
- Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.
- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia.

4. Artikulua. Aurrekontuko diru-hornidura.

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak aurrekontuko honako partidetatik emango dira:

- 1 1300.481.341.00.01 2024 Kirol dirulaguntzak kirol elkarte edo talde federatuentzat 100.000€.

- 1 1300.481.341.00.02 2024 Kirol jardueretako dirulaguntzak 62.500,00€.

Artículo 4. Dotación presupuestaria.

Las subvenciones contempladas en la presente convocatoria se concederán de las siguientes partidas presupuestarias:

- 1 1300.481.341.00.01 2024 Subvenciones deportivas para asociaciones o clubes deportivos federados 100.000 €.

- 1 1300.481.341.00.02 2024 Subvenciones actividades deportivas 62.500,00 €.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

6. Artikulua. Onuradunak eta diruz lagunduko diren jarduerak.

Oinarri hauen bidez arautzen diren laguntzak ondorengo baldintzak betetzen dituzten kirola sustatzeko eta irabazi asmorik gabeko izaera duten kirol elkarte eta taldeek eska ditzakete, jarduera arrunten eta aparteko jardueren kasuan:

a) Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Entitateen erregistroan izatea.
b) Identifikazio fiskaleko kodea edukitzea eta betebehar fiskalei dagokionez egunean egotea.
c) Bere egoitza soziala eta bere jardueren garapenerako azpiegitura Zumaiako udalerrian edukitzea eta bere jarduera nagusia esparru honetan garatzea ere.
d) Eskola kiroleko foru araudia betetzea.
e) Zumaiako Udalaren euskara irizpideak betetzea.
f) Kirol elkarte eta talde eskatzaileek eskaera eta aurkezteko epeei dagokienez oinarrietan zehaztutakoa bete beharko dute.

II. ESKAERAK

6.Artikulua. Onuradunen bete-beharrak.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Zumaiako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzan xedatutakoaz gain, honako hauek dira

Artículo 6. Personas beneficiarias y actividades a subvencionar.

Podrán presentar solicitud de subvención aquellas asociaciones y clubes deportivos que organicen actividades de promoción deportiva que cumplan las condiciones que a continuación se relacionan, en relación a las actividades ordinarias como a las extraordinarias:

a) Haberse constituido con arreglo a la legislación en vigor y hallarse inscrito en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.
b) Disponer de Código de Identificación Fiscal y hallarse al corriente de las obligaciones fiscales.
c) Que su sede social y la infraestructura para el desarrollo de sus actividades se ubique en el municipio de Zumaia y que su actividad principal se desarrolle en dicho ámbito.
d) El cumplimiento de la Norma Foral de Deporte Escolar.
e) Cumplimiento de los criterios lingüísticos del Ayuntamiento de Zumaia respecto al euskera.
f) Las asociaciones y los clubes solicitantes deberán cumplir con relación a la solicitud y a los plazos de solicitud lo establecido en las presentes bases.

II. SOLICITUDES

Artículo 6. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y en la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia, son

onuradunaren betebeharrak:

- Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea dirulaguntza.
- Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Zumaiako Udalari.
- Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektibo, nola subjektibo– aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauen 10. artikuluan adierazitako baldintzak betetzeko behar diren kudeaketa lanak egitea.

obligaciones de la persona beneficiaria:

- Destinar la subvención al mismo fin concreto para el que haya sido concedida.
- Aportar al Ayuntamiento de Zumaia cuanta información complementaria les sea solicitada.
- Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
- Realizar las gestiones necesarias para cumplir los requisitos establecidos en el artículo 10 de estas bases.

7. Artikulua. Eskaerak eta aurkezteko epeak.

1.- Oinarri hauetan xedaturiko eremuan kokatzen diren kirol elkarteek zein taldeek eta, jarduteko gaitasuna dutenek, dagokion eskaera aurkeztu ahal izango dute.

Eskabideak dagokion deialdiaren I. eranskinean agertuko den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

2.- Zumaiako udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek

Artículo 7. Solicitudes y plazos de presentación.

1.- Los clubes o asociaciones deportivas que se encuadren en el ámbito establecido en las presentes bases y los que tengan capacidad de obrar, podrán presentar la correspondiente solicitud

Las solicitudes se formularán mediante el modelo normalizado que figurará en el anexo I de la correspondiente convocatoria.

2.- El Ayuntamiento de Zumaia mediante el Nodo de Nisae, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak eta dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

3.- Administrazio publikoaren arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazioak egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

3.- El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

Horren ildotik, Zumaiako udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia verificará los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

- Zerga betebeharrak beteak dituela.

- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

4.- Zumaiako Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

4.- La certificación de cumplir las obligaciones con el Ayuntamiento de Zumaia se realizará de oficio.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

5.- Aurkeztu beharreko agiriak Jarduera arruntei dagokienez:

a) Eskaera inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta (1. eranskina).
b) Pertsona fisikoak: NANaren kopia. Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NANa eta ordezkatzeko lege ahalmena duela ziurtatzen duen agiria.
c) Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duen agiriaren fotokopia.
d) Eusko Jaurlaritzako elkarteen eta entitateen erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
e) Elkarteari dagokion federazioan alta ematearen fitxa edo ziurtagiria.
f) Egingo diren kirol jardueren aurreikuspena (5. eranskina).
g) Dirulaguntza eskatzen den jardueraren gastuen eta diru sarreren aurrekontua elkarteko arduradunak sinatuta.
h) Udalari dagokion entitatean informazioa eskatzeko baimena (1. eranskina). Eman ezean, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean betetzen direla akreditatzen duten agiriak.
i) Instituzio eta erakundeetan egin diren dirulaguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren dirulaguntzena (2. eranskina).

5.- Documentación a presentar En relación con las actividades ordinarias:

a) Solicitud de subvención normalizada. (Anexo 1).
b) Personas físicas: copia del DNI. Personas jurídicas: copia del CIF, DNI del representante legal y documento acreditativo de la capacidad legal de representación.
c) Fotocopia del documento del Código de Identificación Fiscal.
d) Certificado de inscripción en el registro de Asociaciones y Entidades deportivas del Gobierno Vasco.
e) Ficha o certificado de alta de la asociación expedida por la federación correspondiente.
f) Previsión de la actividad deportiva (Anexo 5).
g) Presupuesto de gastos e ingresos para la actividad solicitada, firmado por el responsable de la asociación.
h) En caso de no dar autorización al Ayuntamiento para recabar información de los entes pertinentes (Anexo 1), deberá entregar documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones, tributarias y de seguridad social.
i) Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante instituciones, organismos, o en su caso, de las que estuvieran otorgadas

(Anexo 2).

j) Zinpeko aitorpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, amaierako seigarren xedapenak arautzen duen ildotik (1. eranskina).
k) Euskara bultzatzeko elkartearen ekarpena (3. eranskina).
l) Berdintasun ikuspuntuaren garapena elkartean (4. eranskina).
m) Foru Aldundiak eskola mailako kirolari zuzendutako araudia bete (1. eranskina).
n) Emandako datu guztiak egiazkoak direnaren aitortza (1. eranskina).

j) Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayuda públicas, ni de hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (Anexo 1).
k) Aportación de la asociación a la promoción del euskara (Anexo 3).
l) Desarrollo de la perspectiva de género en la asociación (Anexo 4).
m) Cumplir la normativa foral para el deporte escolar (Anexo1).
n) Declaración de que todos los datos aportados son veraces (Anexo1).

Zumaiako Udaleko elkarteen erroldan izanez gero b), c), d), eta e) puntuan zehazten diren dokumentuak ez dituzte aurkeztu beharko.

En el caso de estar inscritos en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento de Zumaia no deberán aportar los documentos que se especifican en el punto b), c), d) y e).

Kitapen memoria urriak 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

La memoria justificativa deberá ser presentada antes del 30 de octubre.

a) Dirulaguntzaren eskaera-orria normalizatua (1. eranskina).
b) Diru sarrera eta gastuen balantzea elkarteko arduradunak sinatuta.
c) Gastu guztien faktura eta transferentzia-agiriak.
d) Federaziotik jasotako agiriak (jokalari eta entrenatzaileen fitxa), behar bezala ziurtatuta egon behar dute.

a) Hoja de solicitud de subvención normalizada (Anexo 1).
b) Balance de ingresos y gastos, firmado por el responsable de la asociación.
c) Facturas y órdenes de transferencia de todos los gastos.
d) Los documentos que procedan de la federación (ficha de jugadores y jugadoras y entrenadores y entrenadoras), deberán estar debidamente certificados.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

e) Kirol memoria (5. eranskina).

6.-Aurkeztu beharreko agiriak aparteko jarduerei dagokienez:

6.1.-

a) Dirulaguntzaren eskaera-orria normalizatua (1. eranskina).

b) Xehaturiko jarduera egitaraua (data, tokia, partaideak, jarduerari buruzko azalpenak…) (6. eranskina).

c) Diru sarrera eta gastuei buruzko aurrekontua zehaztua.

d) Jardueraren kartela.

6.2.-

Behin bukaturik (ekintzak ospatu eta gehienez ere datorren urteko urtarrilaren 15ean aurkeztu beharko dira) aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Dirulaguntzaren eskaera-orria normalizatua. (1. eranskina).

b) Jardueraren kirol memoria (jardueraren nondik norakoak, argazkiak…).

c) Diru sarrera eta gastuen balantzea elkarteko arduradunak sinatuta.

d) Gastu guztien faktura eta transferentzia-agiriak.

6.3.-Eskaerak aurkezteko epea:

Jarduera arruntei dagokienez:

e) La memoria deportiva (Anexo 5).

6.- Documentación a presentar en relación con las actividades extraordinarias:

6.1.-

a) Solicitud de subvención normalizada (Anexo 1).

b) Programa de actividades detallado (fecha, lugar, participantes, descripción de la actividad…) (Anexo 6)

c) Presupuesto detallado de gastos e ingresos, firmado por el responsable de la asociación.

d) Cartel del evento/actividad extraordinaria.

6.2.-

Documentación a presentar una vez finalizada (a más tardar el 15 de enero del próximo año tras la celebración de las actividades):

a) Hoja de solicitud de subvención normalizada. (Anexo 1)

b) Memoria deportiva de la actividad (datos del desarrollo de la actividad, fotografías…)

c) Balance de ingresos y gastos, firmado por el responsable de la asociación.

d) Facturas y ordenes de transferencia de todos los gastos.

6.3.- Plazo de presentación de solicitudes.

En relación con las actividades ordinarias:



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia eta oinarri arautzaileak publikatu eta, eskaerak, 20 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik zenbatzen hasita. Epea amaitzeko eguna igandea edo egun baliogabea bada, epe horren azken eguna hurrengo egun balioduna izango da.

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 20 días naturales desde que se publiquen las bases reguladoras y la convocatoria. Si el día de finalización del plazo fuera domingo o día inhábil, el último día de dicho plazo será el día hábil inmediatamente siguiente.

Aparteko jarduerei dagokienez:

Respecto a las actividades extraordinarias:

Arau erregulatzaileak eta deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnean, eskabideak hurrengo egunetik hasita abenduaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira. Epea amaitzeko eguna igandea edo egun baliogabea bada, epe horren azken eguna hurrengo egun balioduna izango da.

En cuanto se publiquen las normas reguladoras y la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Guipúzcoa, las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente hasta el 20 de diciembre.
Si el día de finalización del plazo fuera domingo o día inhábil, el último día de dicho plazo será el día hábil inmediatamente siguiente.

8. Artikulua. Eskaera telematikoen aurkeztea.

Artículo 8. Presentación de solicitudes telemáticas.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena kontuan hartuz, eskaerak Erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, Udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

Teniendo en cuenta la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes deberán presentarse a través del Registro electrónico, accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento, a través de su página web (www.zumaia.eus).

9. Artikulua. Akatsak zuzentzea.

Artículo 9. Subsanación de errores.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua).

días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados (artículo 68.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre).

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi duela iritziko da, eta prozedura artxibatuko da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legean 94. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se entenderá que desiste de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.

10. Artikulua. Eskatzaileek onuradun izateko bete beharreko baldintzak.

Artículo 10. Requisitos de las personas solicitantes para ser beneficiarias.

Kirol elkarte edo talde bakoitzak eskaera bakarra aurkez dezake. Arau hauek hausten dituenari atzera botako zaizkio hark izenpetutako eskaera guztiak.

Cada asociación o club deportivo sólo puede presentar una solicitud. Se desestimarán todas las solicitudes suscritas por quien infrinja estas normas.

Eskaera bat aurkezteak esan nahi du proiektuaren eskatzaileak oinarri hauetan xedaturikoa inolako baldintzarik gabe onartzen duela.

La presentación de una solicitud supone que el solicitante acepta lo dispuesto en estas bases sin condicionamiento alguno.

Dagokion jarduera gauzatzeko ardura duten kirol elkarte edo taldeek, zein erreleboa hartzen dutenek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

La asociación o club deportivo o relevista responsable de la realización de la actividad correspondiente deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Zumaiako Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak eguneratuta izatea.
b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

c) Parte hartzeko eskaera inprimakia beteta eta aurkeztuta izatea.
d) Euskararen presentzia bermatua

a) Estar al corriente en el pago de los impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Zumaia.
b) Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y la Seguridad Social.
c) Tener cumplimentado y presentado el impreso de solicitud.
d) Que tenga garantizada la

| Dokumentu kod./Cod. Documento | 2024DKID0001-A24/00961 |
|---|---|
| CUDO kodea/Có. CUDO | **000.0081.AAAAF4LK.Q.zXXU** |
| Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos | **https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAF4LKQ.zXXU** |

izatea.

11. Artikulua. Eskabideak hautatzeko eta baloratzeko irizpideak.

1.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti izango da betetzeko Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea). Gastuen epeak hauek dira:

- Jarduera arrunta: Dirulaguntza eskatzen den denboraldiari dagozkienak.
- Aparteko jarduera: Dirulaguntza eskatzen den urteari dagozkionak.

Egindako gastutzat joko da araudi honetan zehaztutako justifikazio-epea amaitu aurretik egin eta ordaindu dena. Betiere zerga-betebeharrak (atxikipena eta hala dagokionean BEZ) egunean daudela egiaztatu beharko da justifikazioan.

2. Laguntzak nori eman hautatzeko irizpideak.

2.1.- Jarduera arruntagatik dirulaguntza:

Elkarteak jasoko duen dirulaguntza, puntu bati dirutan emandako balioa, eta biltzen duen puntu kopurua biderkatuz lortzen den emaitza izango da.

presencia del euskera.

Artículo 11. Criterios de selección y valoración de las solicitudes.

1.- Gastos subvencionables.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases. Siempre de acuerdo con lo previsto en el art. 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Los plazos de los gastos son los siguientes:

- Actividad ordinaria: las pertenecientes a la temporada subvencionada.
- Actividad extraordinaria: las pertenecientes al año de la solicitud.

Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado en la presente normativa. La justificación deberá estar, en todo caso, al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (retención o IVA en su caso).

2. Criterios de selección de las personas beneficiarias de las ayudas.

2.1.-Ayuda para actividad ordinaria

El valor económico calculado equivalente a un punto multiplicado por puntos que reúna la asociación, determinará la cuantía de la subvención otorgada.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zuritutako gastua jaso beharreko laguntza baino txikiagoa bada, kitapena egin ondoren kopuru hori soberakin bihurtuko da. Lehenengo banaketa egin ondoren soberakinik gelditzen bada, bigarren buelta batean egoki zuritu dutenen artean birbanatuko da, beti ere, lehenengo bueltan jasotako puntuazio edo batezbestekoaren arabera. Prozedura behar beste aldiz jarraituko da dirulaguntzaren aurrekontu guztia banatu arte.

a) LIZENTZIAK:

- Lehiaketa erregularrak dituen elkartea: lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Aisialdiko elkarteak: lizentzia bakoitzeko 0,25 puntu.
-

b) LEHIAKETA ESPARRUA:

- Taldeak lehiaketa esparruaren arabera:
  - Probintzia esparrua: 5 puntu.
  - Autonomia esparrua: 10 puntu.
  - Autonomien arteko esparrua: 15 puntu.
  - Estatuko esparrua: 25 puntu.

- Banakako kirolak direnean, taldeak era honetan osatuko dira:
  a) Pilota, modalitate guztietan, maila bereko gutxieneko lau jokalari behar dira talde bat osatzeko.

  b) Piraguismo, Arrauna, Txirrindularitza...: taldeko

En el caso de que el gasto justificado sea inferior a la ayuda a percibir, una vez realizada la liquidación, dicha cantidad se convertirá en remanente. Si tras el primer reparto quedase remanente, en una segunda vuelta se redistribuirá entre quienes lo hayan justificado adecuadamente, según la puntuación o porcentaje recibido en la primera vuelta. El procedimiento se seguirá tantas veces como sea necesario hasta el reparto de la totalidad del presupuesto de la subvención.

a) LICENCIAS:

- Asociación con competiciones regulares: por cada licencia 1 punto.
- Clubes de ocio: por cada licencia 0,25 puntos.

b) ÁMBITO DE COMPETICIÓN:

- Equipos, por ámbito de competición:
  - Ámbito provincial: 5 puntos.
  - Ámbito autonómico: 10 puntos.
  - Ámbito interautonómico: 15 puntos.
  - Ámbito estatal: 25 puntos.

- En deportes individuales los equipos se compondrán de la siguiente forma:
  a) Deporte de pelota, en todas sus modalidades, se requiere un mínimo 4 jugadores de una misma categoría para completar un equipo.
  b) Piragüismo, ciclismo, remo, etc.; el concepto de equipo

izaera, maila ezberdinekin parekatzen da.

se equipará al de diferentes categorías.

c) ENTRENATZAILEAK:

c) ENTRENADORES Y ENTRENADORAS:

Elkartean jarduten duten entrenatzaileak izan beharko dira. Fitxa bakoitzeko:

Deberán ser entrenadoras y entrenadores que realicen su actividad dentro de la asociación. Por cada ficha:

- Oinarrizko entrenatzaile titulua: 1 puntu.
- Erdi mailako entrenatzailea: 3 puntu.
- Goi mailako entrenatzailea: 6 puntu.

- Título básico de entrenador o entrenadora: 1 punto.
- Título medio de entrenador o entrenadora: 3 puntos.
- Título superior de entrenador o entrenadora: 6 puntos.

Denboraldian zehar, titulua atera duten edo ateratzen ari diren entrenatzaile agiriak entrenatzaile titulutzat hartuko dira.

Se considerarán como títulos de entrenador y entrenadoras tanto los ya conseguidos como los que se estén obteniendo durante la temporada.

Elkarteko fitxa ez duten entrenatzaileen kasuan horrela justifikatuko da:

En el caso de entrenadores y entrenadoras que no tengan ficha en el club, se justificará de la siguiente manera:

- Elkarteari bere lanak prestatzearen faktura normalizatua.
- Entrenatzaile titulu ofizialaren agiria.

- Factura normalizada de prestar sus servicios al club
- Certificado de título oficial de entrenador y entrenadora.

Etorkizunean hezkuntzako titulazioa, kirolaren euskal eskolak bideratutako titulazioak balioztatuko direla jakinarazten da.

Se notifica que en un futuro se valorarán como titulaciones de formación las otorgadas por la Escuela Vasca del Deporte.

d) LEHIAKETA IZAERA BEREZIA

d) COMPETICIONES DE CARÁCTER EXTRAORDINARIO

Taldeek, diruz laguntzen den denboraldian Eusko Autonomia Erkidegotik kanpo, egutegi ofizialaren barneko Izaera Bereziko Lehiaketetara

A los clubes por traslados realizados durante la temporada, a competiciones de carácter extraordinario e integradas en el

(eskualdeko edo txapelketa faseak direla eta) egiten dituzten irteerak kontuan hartuko dira, eta puntu banaketa honela egingo da:

Km. Kopurua ( joan – etorri) x lehiakide kopurua x txapelketa egun kopurua
1500

Lehiakideak izango dira txapelketan parte hartzeko beharrezkoak diren pertsonak, hau da, txapelketako aktan jasoak daudenak.

Txapelketako aktak partaide gehigarririk (entrenatzailea, ordezkaria,...) jasotzen ez bada, elkarteak zehaztuko ditu horiek; beti ere, ziurtagiriaren bitartez, horrela izan dela egiaztatzen badu.

e) KIROL MATERIALA

Elkarterako den material erosketan erabilitako 400 € bakoitzeko puntu bat.

Kirol jantziak ez dute puntuatuko.

f) KIROL MATERIALEN GARRAIOA.

Kirol materialen garraiatzeko derrigorrezkoa den ibilgailu bakoitzagatik 15 puntu.

Justifikatzeko agiriak:

- Ibilgailua taldearen izatea eta bere izenean egotea.
- Urteko asegurua ordainduta izatea.

calendario oficial (fases de sector y campeonatos) que se celebren fuera de La Comunidad Autónoma del País Vasco, la distribución de puntos será el resultado de la siguiente operación:
Puntos:

Núm. De km (ida-vuelta) x núm. de competidores x núm. de días (campeonato)
1500

Serán competidores las personas o participantes necesarios para el campeonato, es decir, los recogidos en el acta del campeonato.

En caso de que el acta no recoja ningún participante complementario (entrenador, entrenadora, delegado, delegada...) será el club quien los identifique, siempre que pueda acreditarlo efectivamente.

e) MATERIAL DEPORTIVO

Se concederá 1 punto por cada gasto de 400 € utilizado en la compra de material para la asociación.

El vestuario deportivo no puntuará.

f) TRANSPORTE DEL MATERIAL DEPORTIVO.

Se concederán 15 puntos por cada vehículo que sea necesario para transportar el material deportivo.

Documentación para justificarlo:

- Ser el vehículo del club y estar registrado a su nombre.
- Tener al corriente de pago el seguro anual.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

- Udaletxean alta emanda eta zerga ordainduta izatea.
- Taldearen garraiorako eta lanetako bakarrik erabiltzea.

- Tener el vehículo dado de alta en el Ayuntamiento y estar al corriente de pago del impuesto municipal.
- Utilizar el vehículo solamente para transporte y trabajos del club.

g) EUSKARA ARLOAN BETEBEHARRAK.

- Udalarekin ahozko komunikazioak euskaraz egingo dira hala egiteko aukera dagoen guztietan.

- Zumaiako Udalari memoriak euskaraz edo elebitan, eta taula batean entrenatzaileen hizkuntza-gaitasuna eta saioetako hizkuntza (erabilera) zehaztu beharko dira.

- Kartel, iragarki eta antzekoak euskaraz egingo dira (edo ele bietan euskara lehenetsita).
- Bazkideekiko edo herritarrekiko komunikazioetan ere euskarari lehentasuna emango zaio.

Kirol-ekitaldi eta lehiaketetan (sari banaketetan, etab.) megafonia jartzen denean euskarazko musikari lehentasuna emango zaio eta esataria euskaraz arituko da; horretarako arrazoi sendoak baleude, beste hizkuntza batzuk ere erabili ahal izango dira, betiere euskarara lehenetsita.

Baloratuko diren alderdiak:

a) Entrenatzaileen erabilera saioetan (taularen arabera): 4 puntu
b) Euskara bultzatzeko elkartearen ekarpena (3.

g) OBLIGACIONES EN EL ÁREA DEL EUSKERA.

- Las comunicaciones orales con el Ayuntamiento se realizarán en euskera siempre que sea posible.
- Al Ayuntamiento Zumaia se le presentarán las memorias en euskera o en bilingüe y en una tabla hay que presentar la competencia lingüística y el uso del euskera en los entrenamientos de las/os entrenadoras y entrenadores.
- En los carteles, anuncios y demás se dará preferencia al euskera (euskera o bilingüe).
- También en los comunicados a los ciudadanos y ciudadanas, así como a los socios y socias se dará prioridad al euskera.

En las competiciones y actividades deportivas, en donde hay megafonía, tendrán prioridad la música y el locutor en euskera; si hubiera otras razones, se podrán utilizar también otros idiomas, pero siempre primando al euskera.

En el área del euskera, se valorarán los siguientes aspectos:

a) Utilización del euskara por parte de las entrenadoras y los entrenadores en las sesiones (según la tabla): 4 puntos
b) Aportación de la asociación



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Eranskina): 6 puntu

para la promoción del euskera (Anexo 3): 6 puntos.

h) AUTOFINANTZAKETA.

h) AUTOFINANCIACIÓN:

Elkarteek antolatutako aparteko jardueretan autofinantzaketaren ehunekoa.

Porcentaje de autofinanciación en las actividades extraordinarias organizadas por el club.

| **Autofinantzatzea** | | | |
|---|---|---|---|
| Aurrekontuak . | %75-85€ | %85-%99 | %100 |
| Aurrekontua 1.000-5.000 € | 5 puntu | 10 puntu | 15 puntu |
| Aurrekontua 5.000-15.000 € | 10 puntu | 15 puntu | 20 puntu |
| Aurrekontua 15.000–30.000 € | 15 puntu | 20 puntu | 25 puntu |
| Aurrekontua + 30.000 € | 20 puntu | 25 puntu | 30 puntu |

| **Autofinanciación** | | | |
|---|---|---|---|
| Presupuestos. | 75-85 % | 85-99 % | +100 % |
| Presupuesto 1.000-5.000 € | 5 puntos | 10 puntos | 15 puntos |
| Presupuesto 5.000-15.000 € | 10 puntos | 15 puntos | 20 puntos |
| Presupuesto 15.000 – 30.000 € | 15 puntos | 20 puntos | 25 puntos |
| Presupuesto + 30.000 € | 20 puntos | 25 puntos | 30 puntos |

i) BOLUNTARIOAK:

i) PERSONAS VOLUNTARIAS:

Udalak antolatutako jardueretan (Herri Lasterketa, Flysch mendi lasterteta, San Silvestre, etab.) egindako laguntza lanak honela baloratuko dira:

Se valorarán los trabajos de ayuda en las actividades organizadas por el Ayuntamiento (Carrera Popular, Flysch trail carrera de montaña, San Silvestre, etc), de la siguiente manera:

- 5 pertsonako / 2puntu.

- Por cada 5 personas / 2 puntos.

Laguntzen duen jarduera horretan beste dirulaguntza bat jasotzen badu, ez du punturik jasoko.

Si en la actividad subvencionada recibe otra subvención, no percibirá puntos.

III. DIRULAGUNTZAK EMATEA

III. CONCESIÓN DE AYUDAS

12. Artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Artículo 12. Cuantía de las ayudas.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| Dirulaguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa. | El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones Públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria. |
| Egitaraua edo jarduera garatzeko orduan, benetako kostua aurkeztutakoa baino gutxiagoa baldin bada, onartutako dirulaguntza benetako gastuaren neurrian gutxituko da. | Si a la hora de desarrollar el programa-actividad, el coste real es inferior al presentado, la subvención concedida se verá reducida de acuerdo a la parte proporcional del gasto real. |
| Urteko dirulaguntza kontzeptuan jasotako kopurua, behin betiko dirulaguntza erreala baino gehiagokoa izango balitz, aldea itzuli beharko litzateke. | Si la cantidad percibida en concepto de subvención anual fuera superior a la subvención real definitiva, se deberá realizar el reintegro de la diferencia. |
| 13. Artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa. | Artículo 13. Abono de la ayuda. |
| Ordainketa 2 zatitan egingo da erakunde onuradunaren titulartasuneko kontu batera banku-transferentzia bidez:<br>Jarduera arruntei dagokionez: | El pago se realizará en 2 pagos mediante transferencia bancaria a una cuenta de titularidad de la asociación beneficiaria: |
| Eskaria egin eta dirulaguntza emango dela jakinarazi ondoren, aurreko urtean jasotako dirulaguntzaren %60 arterainokoa ordainduko da. | En relación a las actividades ordinarias, una vez realizada la solicitud y comunicada la concesión de la subvención, se abonará hasta el 60 % de la cantidad concedida en el año anterior. |
| Aparteko jarduerei dagokionez: | En relación a las actividades extraordinarias: |
| Zumaiako Udaleko zerbitzu teknikoak zehaztutako gehienezko dirulaguntzaren %40-70a ordainduko da eskaera egitean. | Una vez realizada la solicitud, se abonará el 40-70 % de la subvención dependiendo de lo que determine el servicio técnico del Ayuntamiento de |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zumaia.

Bi kasutan ekintzen memoria eta frogagiriak egiaztatu ondoren, gainerako ehunekoa ordainduko da (kitapena).

Después de comprobar en ambos casos la memoria y justificantes de las actividades, se abonará el porcentaje restante (liquidación).

14. Artikulua. Dirulaguntza bertan behera uztea.

Artículo 14. Anulación de la subvención.

Oinarri hauetan jasotzen diren beste arauek ez betetzeaz gain, dirulaguntza bertan behera utziko da horrelakoren bat gertatzen den momentutik aurrera:

- Udalak aldez aurretik baimenik eman gabe jarduera etetea edo aldatzea.

Además del incumplimiento de las demás normas contenidas en estas bases, se anulará la subvención a partir del momento en que se den las siguientes causas:

- El cambio de actividad sin autorización previa del ayuntamiento.

15. Artikulua. Dirulaguntzen batera-garritasuna.

Artículo 15. Compatibilidad con otras ayudas.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismoek emandako laguntzekin. Hala ere, gainfinantzaketa ez da onartuko eta kasu horretan, jakinarazi egin beharko du eta dagokion zati proportzionala itzuli beharko du laguntzaren onuradunak.

Las subvenciones contempladas en las presentes bases serán compatibles con otras concedidas por otras asociaciones y organismos. No obstante, no se admitirá la sobrefinanciación, en cuyo caso la persona beneficiaria de la ayuda deberá comunicarlo y devolver la parte proporcional correspondiente.

16. Artikulua. Finantzaketa.

Artículo 16. Financiación.

Kirol elkarte eta taldearen jarduera eta hedaketa bultzatzeko ekintzen dirulaguntzak finantzatzeko diru baliabideak Zumaiako Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu kredituak erabiliko dira.

Los recursos económicos destinados a la financiación de las subvenciones correspondientes a las actividades de fomento de la actividad y difusión de asociaciones y clubes deportivos se destinarán a los créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Zumaia.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Dirulaguntzak emateko, Udalak dagokion aurrekontu partida bideratuko du, eta aurrekontu horren zenbatekoa izango da Zumaiako Udalak emango duen gehieneko kopurua.

El Ayuntamiento dispondrá la partida correspondiente con el objeto de conceder las ayudas, y las mismas no sobrepasarán la partida destinada a ello.

IV. PROZEDURA

IV. PROCEDIMIENTO

17. artikulua. Balorazio irizpideak.

Artículo 17. Criterios de valoración.

Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dirulaguntzak dagokion ordenantzan ezarritako baldintzetan emango dira.

Comprobado el cumplimiento de las condiciones y requisitos, se concederán las ayudas en las condiciones establecidas en la correspondiente ordenanza.

18. Artikulua. Dirulaguntza eskaeren ebazpena.

Artículo 18. Resolución de las solicitudes de subvención.

1.- Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio ebaztea.

1.- Corresponderá a la Junta de Gobierno Local la resolución.

2.- Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango dute.

2.- El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de 3 meses. El plazo se computará a partir de la fecha de finalización del plazo para la presentación de solicitudes. El vencimiento de este plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legitima a las personas interesadas para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

3.- Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- La resolución del procedimiento se notificará a las personas interesadas de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

V. DIRULAGUNTZAREN KONTROLA

19. Artikulua.

Zumaiako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, edota Udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte dirulaguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Zumaiako Udalak, bere fiskalizazio eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, dirulaguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

VI. ARGITARA EMATEA

20. Artikulua.

Zumaiako Udalaren webgunean eta iragarki oholean argitaratuko dira emandako dirulaguntzen zerrenda, horiek jasoko dituzten onuradunak eta jasotako diru kopuruak.

Dirulaguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta dirulaguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta dirulaguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

21. Artikulua. Administrazioaren eskumenak.

Dagokion legeriaren arabera,

V. CONTROL DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 19.

El Ayuntamiento de Zumaia podrá requerir a las personas beneficiarias la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

Los Servicios Municipales podrán acudir e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases.

Las personas beneficiarias de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Zumaia en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

VI. PUBLICIDAD

Artículo 20.

La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Zumaia y en el tablón de anuncios del mismo.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases reguladoras de las subvenciones.

Artículo 21. Competencias de la Administración.

De acuerdo con la legislación



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

adjudikazio organoak eskumen hauek ditu:

a) Eskaerak interpretatzekoa.
b) Eskabideen betekizunei buruzko zalantzak argitzea.
c) Eskaerari lotutako adjudikazioa aldatzekoa, interes publikoko arrazoiak tarteko badira.
d) Dirulaguntzaren adjudikazioa bertan behera uztekoa eta erabaki horren ondorioak zehaztekoa.
e) Dirulaguntzen adjudikazioak hutsik uztekoa, aurkeztu diren eskaerak programa honen helburuarekin bat ez badatoz edo eskatzen diren gutxienekoak betetzen ez badira.

VII. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HIZKUNTZA OHARRA

22. Artikulua. Hizkuntza oharra.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa.

23. Artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea.

VIII. ERREKURTSOAK

26. artikulua. Errekurtsoak.

Oinarri hauen aurka berraztertzeko

correspondiente, el órgano de adjudicación tiene las siguientes competencias:

a) Interpretar las solicitudes.
b) Resolver las dudas relativas a los requisitos de las solicitudes.
c) Modificar por razones de interés público la adjudicación vinculada a la solicitud.
d) Anular la adjudicación de la subvención y determinar los efectos de la misma.
e) Declarar desiertas las adjudicaciones de subvenciones en el supuesto de que las solicitudes presentadas no se ajusten al objeto del presente programa o no cumplan los mínimos exigidos.

VII. INTERPRETACIÓN DE LOS DATOS Y NOTA LINGÜÍSTICA

Artículo 22. Nota lingüística.

En el caso de que se detecten contradicciones o incoherencias entre los textos en euskera y castellano, prevalecerá el texto en euskera.

Artículo 23. Interpretación de las bases.

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas bases será resuelta por el órgano encargado de conceder la subvención.

VIII. RECURSOS

Artículo 26. Recursos.

Contra las presentes bases podrá



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean hura onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente, o impugnarlas directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus